# LA PAMPLONESA EN EL GAYARRE 2022
## RELATOS CERCANOS

DL NA 2656-2022

www.bandapamplonesa.com | www.pamplonaescultura.es

# LA DEL MANOJO DE ROSAS
## EN COLABORACIÓN CON EL AULA DE CANTO DEL CONSERVATORIO SUPERIOR DE MÚSICA DE NAVARRA

LUNES 28 DE NOVIEMBRE. 20:00
MARTES 29 DE NOVIEMBRE. 19:00




■ LUIS Mª SAN MARTÍN URABAYEN

«... Traté de cuidar mucho el estilo, la unidad musical de toda la partitura. Me propuse hacer una música sencilla, espontánea, garbosa, que tuviera salero y sentimiento, con sabor popular, pero no folclórico ni populachero y que, dentro de su sencillez, los entendidos en música encontrasen huellas de modernidad. Está dedicada a mi hijo Pablo, que vino al mundo a la vez que esta partitura.» [P. Sorozabal sobre *La del Manojo de Rosas*]

El concierto dedicado a la zarzuela que interpreta La Pamplonesa en torno a la festividad de S. Saturnino, es un homenaje a Pablo Sorozabal (1897-1988) en el 125 aniversario de su nacimiento. Además, cuenta con la colaboración del Aula de Canto del CSMN para interpretar por primera vez en versión concierto y adaptada para banda, los números musicales de ***La del manojo de rosas***, obra cumbre del autor guipuzcoano estrenada en el Teatro Fuencarral de Madrid un martes y 13 de noviembre de 1934. A punto estuvo de no realizarse por tal motivo, pero prevaleció el criterio del músico que consideraba esa superstición como una "paparrucha".

Los libretistas Anselmo Carreño y Ramos de Castro ofrecieron la obra a F. Moreno Torroba, quien la rechazó. Sorozabal aceptó el reto con la condición de suprimir escenas vulgares y añadiendo otras. Con algún desencuentro con los autores, se estrenó cuando el sainete madrileño no tenía tanta popularidad, pero Sorozabal estaba convencido de que seguía vivo y por ello situó la acción en el propio 1934. El día del estreno, el ABC publicaba: *"el sainete debe ser como un reflejo sentimental y gracioso de la vida popular, porque cambia lo externo: atuendo, diálogo, lugar de acción, pero los sentimientos del pueblo no varían"*. El gran éxito se vio colmado con el nacimiento de su hijo, Pablo Sorozabal Serrano.

La acción tiene lugar en una plaza de un barrio acomodado de Madrid, en la que hay un garaje, un bar y una tienda de flores llamada "La del manojo de rosas". Allí están Joaquín, el oficial mecánico del garaje con su aprendiz Capó, el camarero Espasa, el dueño de la tienda de flores D. Daniel y su hija Ascensión, de educación esmerada, orgullosa de su origen obrero y que solo quiere amores con un hombre de su clase. Don Daniel prefiere a Ricardo, un joven aviador, pero Ascensión quiere a Joaquín. Tras muchos enredos y confusiones, al final todo es propicio para el amor noble entre Ascensión y Joaquín. En dos actos y seis escenas, la musica incluye ritmos propios del momento como el chotis, el pasodoble, la habanera, la farruca o el fox-trot, así como romanzas y dúos. Números como *"Dice la gente del barrio"*, *"Hace tiempo que vengo al taller"*, *"¿Quién es usté?"*, *"No corte más que una rosa"*, *"Si tú sales a Rosales"*, *"Ascensión ¿qué es lo que quieres?"*, *"No: no me importa...Madrileña bonita"*, *"¡Qué tiempos aquellos!"* o *"¿Es que tú te has creído?"*. Entre ellos, el conocido y divertido *"Chinochilla de mi charniqué"*, que el propio Sorozabal compuso con un diccionario de lenguaje caló.

***La del manojo de rosas*** se intercala entre *Katiuska* (1931) y *La Tabernera del Puerto* (1936), que conforman el trío de obras escritas por Sorozabal en los años treinta. El propio autor bromeaba diciendo que tres mujeres lo habían mantenido de por vida: ¡una princesa rusa, una camarera vasca y una florista de Madrid! El resultado de ésta, llena de sátira social, es quizá su partitura más memorable y mejor integrada, ya que cada número tuvo un gran éxito. Junto a *Los Claveles* (J. Serrano, 1929) y *Me llaman la Presumida* (F. Alonso, 1935), configuró una trilogía de zarzuelas que mostraron la vida popular madrileña en los años inmediatamente anteriores a la Guerra Civil (1936-39).

## PROGRAMA
**La del Manojo de Rosas**
PABLO SOROZABAL

## REPARTO
María Ruiz
ASCENSIÓN
Petri Aryton
JOAQUÍN
Imanol Gamboa
CAPÓ, ESPASA Y NARRADOR
Roberto Olabarría
RICARDO
Nerea González
CLARITA
Nicolás Iribas
EL DEL MANTECADO

## PROFESORAS
Carmen Arbizu
PROFESORA DE CANTO
Mercedes Castaño
PROFESORA DE ESCENA
Leyre Lisarri
PIANISTA REPERTORISTA

## DIRECCIÓN
J. Vicent Egea

## PRÓXIMO CONCIERTO
**Danza navideña**
Domingo 18 de noviembre
Teatro Gayarre. 12:00

COLABORA:
Escuela de Danza de Navarra

DIRECTOR:
J. Vicent Egea

Ayuntamiento de Pamplona | Iruñeko Udala
GAYARRE ANTZOKIA UDAL FUNDAZIOA | FUNDACIÓN MUNICIPAL TEATRO GAYARRE
LA PAMPLONESA



# LA PAMPLONESA GAYARREN. 2022

## *RELATOS CERCANOS*

LG NA 2656-2022

www.bandapamplonesa.com | www.pamplonaescultura.es

## *LA DEL MANOJO DE ROSAS*

### KONTZERTURAKO BERTSIOA, NAFARROAKO GOI-MAILAKO KONTSERBATORIOKO KANTU-IKASGELAREKIN ELKARLANEAN

AZAROAK 28, ASTELEHENA. 20:00
AZAROAK 29, ASTEARTEA. 19:00




■ LUIS Mª SAN MARTÍN URABAYEN

«… Estiloa, partitura osoaren batasun musikala zaintzen saiatu nintzen. Musika sinplea egin nahi izan nuen, espontaneoa, bizia, gatza eta sentimendua, zapore herrikoia, izanen zituena, baina ez folklorikoa, ezta jendailarentzakoa ere, baita bere sinpletasunean, musikan aditu zirenek modernitatearen aztarnak aurkitzeko modukoa ere Nire seme Pablori eskainia da, partitura honekin batera sortu baitzen mundura.» [P. Sorozabalek "La del manojo de Rosas" zarzuelari buruz]

La Pamplonesak Done Saturdiko ospakizunetan interpretatu ohi duen zarzuelaren kontzertuak Pablo Sorozabal (1897-1988) omenduko du haren jaiotzaren 125. urteurrenean. Gainera, Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioko Kantu Ikasgelaren laguntza izanen du ***La del manojo de rosas*** obraren musika-saioak lehen aldiz kontzertu-bertsioan eta bandarako egokituta interpretatzeko. Egile gipuzkoarraren lan gorena den hori, 1934ko azaroaren 13an eta asteartearekin estreinatu zen Madrilgo Fuencarral antzokian. Arrazoi hori zela-eta ez egiteko zorian egon zen, baina musikariaren irizpidea nagusitu zen, sineskeria hori "txorakeria" bat zela uste baitzuen.

Anselmo Carreño eta Ramos de Castro libretistek F. Moreno Torrobari eskaini zioten obra, baina honek uko egin zion. Sorozabalek erronka onartu zuen, eszena baldar batzuk kendu eta beste batzuk sartzeko baldintzarekin. Egileekin izandako desadostasun bat edo beste tarteko, sainete madrildarrak horrenbesteko osperik ez zuenean estreinatu zen, baina Sorozabal sinetsita zegoen oraindik bizirik zegoela eta horregatik kokatu zuen ekintza 1934an bertan. Estreinaldiaren egunean ABCk honako hau argitaratu zuen: *"saineteak herri-bizitzaren isla sentimental eta xelebrea izan behar du, azalekoa aldatzen baitu: janzkera, elkarrizketa, ekintza lekua, baina herriaren sentimenduak, aldiz, ez dira aldatzen".* Arrakasta handiak eragindako pozak gainezka egin zuen haren seme Pablo Sorozabal Serrano jaiotzean.

Ekintza Madrilgo auzo aberats bateko plaza batean gertatzen da. Plaza horretan, garaje bat, taberna bat eta "La del manojo de rosas" izeneko lore-denda bat daude. Han daude Joaquín, garajeko ofizial mekanikoa bere ikasle Capórekin, Espasa zerbitzaria, On Daniel lore-dendaren jabea eta bere alaba Ascensión, arreta handiz hezia, bere langile-jatorriaz harro dagoena eta bere klaseko gizon baten maitasuna besterik nahi ez duena. On Danielek gogokoago du Ricardo, hegazkinlari gaztea, baina Ascensionek Joaquin maite du. Katramila eta nahaste askoren ondoren, azkenean Ascensión eta Joaquínen arteko maitasun zintzoaren alde eginen du guztiak. Bi ekitaldi eta sei eszenatan, garai hartako erritmoak hartuko ditu musikak, esaterako, txotisa, pasodoblea, habanera, farruca edo fox-trota, baita erromantzak eta duoak ere. *"Dice la gente del barrio", "Hace tiempo que vengo al taller", "¿Quién es usté?", "No corte más que una rosa", "Si tú sales a Rosales", "Ascensión ¿qué es lo que quieres?", "No: no me importa...Madrileña bonita", "¡Qué tiempos aquellos!"* edo *"¿Es que tú te has creído?"* dira horietako batzuk. Horien artean, *"Chinochilla de mi charniqué"*, ezagun eta dibertigarria Sorozabalek berak kalo hizkuntzako hiztegi batekin konposatu zuena.

***La del manojo de rosas*** *Katiuska*ren (1931) eta *La Tabernera del Puerto*ren (1936) artean tartekatu zen. Hiru obra horiek Sorozabalek hogeita hamarreko hamarkadan idatzitako lanen hirukoa osatzen dute. Egileak berak txantxetan esaten zuen hiru emakumek jaten eman ziotela betiko: printzesa errusiar batek, zerbitzari euskaldun batek eta Madrilgo lore-saltzaile batek! Horren emaitza, satira sozialez betea, haren partiturarik gogoangarriena eta hobekien osatua izanen da beharbada, ekitaldi guztiek arrakasta handia izan baitzuen. *Los Claveles* (J. Serrano, 1929) eta *Me llaman la Presumida* (F. Alonso, 1935) lanekin batera, Gerra Zibila hasi aurreko urteetan (1936-39) Madrilgo herri-bizitza erakutsi zuten zarzuelen trilogia osatu zuen.

## PROGRAMA

***La del Manojo de Rosas***
PABLO SOROZABAL

## AKTOREAK

María Ruiz
ASCENSIÓN

Petri Aryton
JOAQUÍN

Imanol Gamboa
CAPÓ, ESPASA ETA NARRATZAILEA

Roberto Olabarría
RICARDO

Nerea González
CLARITA

Nicolás Iribas
MANTEKADOARENA

## IRAKASLEAK

Carmen Arbizu
KANTU-IRAKASLEA

Mercedes Castaño
ESZENA-IRAKASLEA

Leyre Lisarri
PIANO-JOTZAILE ERREPERTORISTA

## ZUZENDARITZA

J. Vicent Egea

## HURRENGO KONTZERTUA

***Danza navideña***
Abenduak 18, igandea
Gayarre antzokia. 12:00

LAGUNTZAILEA:
Nafarroako Dantza Eskola

ZUZENDARIA:
J. Vicent Egea

Ayuntamiento de Pamplona | Iruñeko Udala
GAYARRE ANTZOKIA UDAL FUNDAZIOA | FUNDACIÓN MUNICIPAL TEATRO GAYARRE
LA PAMPLONESA